

Hizkuntzei eta Hezkuntzari buruzko XXII. Mintegia Bartzelonan

Miquel Siguani omenaldia
egin zaio bertan

"**H**izkuntz aniztasuna: XXI. mendeko erronkak" izeneko mintegia egin berri da Bartzelonan, maiatzaren 26 eta 27an. 1974an egin zen lehenengo aldiz mintegia eta hogeita bigarren edizioa egin izan da aurten. Antolatzaileen iritziz hizkuntza batean baino gehiagotan irakatsi ohi da egun eta, horregatik, hizkuntz aniztasunak ekarriko dituen erronkak aztertu nahi izan dituzte mintegian.

Bestalde, mintegiaren sortzaile eta arima izan den Miquel Siguani irakaslea omentzeko baliatu dute aurtengo edizioa.

Euskal Herriak ere bere ordezkari izan du Bartzelonan eta hizlari nagusien artean izan dira Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu M. Carmen Garmendia eta Euskal Herriko Unibertsitateko pedagogi irakasle Felix Etxeberria.

25 anys
Seminari Llengües i Educació
HOMENAJE AL DR. SIGUANI

ADHESIONS
El Departament d'Ensenyament i Recerca de la Universitat de Barcelona organitza el XXII Seminari de Llengües i Educació, amb el títol "Plurilingüisme i Educació: els reptes del segle XXI". El seminari tindrà lloc el 26 i 27 de maig del 2000 a l'edifici de la Facultat de Ciències de la Comunicació de la Universitat de Barcelona.

XXII Seminari de Llengües i Educació
Plurilingüisme i educació: els reptes del segle XXI
Programa, informació i inscripcions en català:

XXII Seminario de Idiomas y Educación
Plurilingüismo y educación: los retos del siglo XXI
Programa, información e inscripciones en francés:

XXII Seminar on Languages and Education
Multilingualism and Education: Challenges of the 21st Century
Programme, information and inscription in English:

www.ub.es/ice/sle.htm

ice
Institut de Ciències de la Comunicació
Universitat de Barcelona

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

"Aurki" bilatzailearen bertsio berria

Aurki / **Aurki** HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA
www.aurki.com

Busketa: [] []

Araketa: [] []

Babeslea:

EUSKARAREN POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Euskararen hutszko lehen bilatzailearen bertsio berria aurkeztu dute. Domeinu eta guzti dator oraingoa: <http://www.aurki.com>

Euskarazko Aurki hau America Online (AOL) enpresaren Open Directory Project (ODP) bilatzailea euskarara adaptatze-rik sortu da. Eibar.ORG elkartearen ekimena izan da. Internet eta Teknologia Berrien Erabiltzaileen Elkarte hau 1999ko urrian sortu zen eta beste zenbait asmo ere abiarazi ditu elkarteak berak. Horien artean dira Eibarko ataria (<http://www.eibar.org>), Eibartarrak posta-zerrenda (<http://www.egroups.com/messages/eibartarrak>) eta Aurki bilatzailea bera.

EUSKARAREN

Berripapera

sumarioa

1 • Kultura Sailaren eta Labayruren arteko hitzarmena

2 • Pertsonaia:
Bittor Kapanaga

• Laburrak:
Irakasleen prestakuntza
IKAZOKA

• Agenda:
Toponimia mintegia

3 • UEMA
• "Gidariaren eskuliburua"

4 • Hizkuntzak eta Hezkuntza: Miquel Siguani omenaldia
• "Aurki" bilatzailearen bertsio berria

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta HABEren ordezkariak Quebec-en izan da

Erakunde pribatuen hizkuntza-plangintzaz esperientziak trukatu dituzte L'Office de la Langue Française-ko arduradunekin

Quebec-en izan berri da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta HABEko lantalde bat, ontroleko L'Office de la Langue Française-n. Bi izan dira maiatzaren 15etik 19ra iraun duen bidaiaren helburuak: batetik, erakunde pribatueta hizkuntza-plangintza eta arlo honi dagokion hizkuntza-prestakuntza egun zertan den aztertzea eta, bestetik, EAEko esperientzia zein lan-ildo berriak Quebecen azaldu eta bertako esperientziarekin alderatzea.

Bidaiak iraun zuen bost egun horietan lan-bilerak egin ziren goiz eta arratsaldean Officeko bulegoan bertako adituekin. Horrekin batera, bisitaldia egin zen zenbait enpresatarako bertako frantsese-prozesua nola ari den gauzatzen zuzen-zuzenean ezagutzeko.

Emaitza aberasgarria izan da bi ordezkari zentzuz, eta horren adierazgarri da bi ordezkari zentzuz topaketa berrituko dutela aurtengo udazkenean Euskal Herrian.



Hala Quebec nola Euskal Herria, hizkuntza eta kultura handiak nagusi diren ingurumenean gartzan ari dira beraien nortasun berezia. Horren ondorioz, orain bi urte, Quebecoko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako arduradunek hainbat elkarrizketa izan zuten.

Helburua, bi herrietan abiarazi ziren esperientzien berri bata besteari ematea, nork bere hizkuntzaren bizitasuna indartzeko ekimenak gauzatzeko. Elkarrizketa horien ondorioz, 1999ko abenduaren 3an lankidetzako hitzarmena sinatu zuten bi herriek.

Hitzarmen horretan bost hizkuntza-gai hitzartu ziren lankidetzan jarduteko, horietako bat erakunde pribatueta lan-hizkuntzaren normalizazioa.



ERAKUNDE PRIBATUETARAKO EUSKARA PLANAK

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak lehenesten duen arloetako bat da erakunde pribatuen euskalduntzea. Plan horretan jasotzen denez, beharrezkoa da enpresa munduan euskararen erabilera areagotzea. Euskal Herrian egindako hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik, erakunde pribatuena azken hamarkada honetan garatutako eremua da. 1990-1995 bitartean zenbait proiektu bideratu zen esperientzia pilotu gisa.

Harrezkero, euskara plana abian duten enpresen multzoa ugari egin da: egun 40 enpresa dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin hitzarmena sinatuta dutenak, eta eskaria handituz doa urtetik urtera. Hortaz, baliabideak behar bezala erabiltzeko, plan hauen diseinu, sustapen eta kudeaketarako eredu finkatzea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duen helburuetako bat. Horren ildotik, onuragarritzat jo da beste herrialdeetan egindako bidea bertatik bertara ezagutzeko.



Gouvernement du Québec
Office de la
langue française

laburrak

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

HABEk eta UEUk antolatutako, helduen alfabetatze-euskalduntzearen arloan ari diren irakasleentzako hirugarren jardunaldiak egin ziren maiatzaren 12an Donostian. Ehun irakasletik gora hartu zuten parte bertan eta euskalduntzearen alderdi pragmatikoa landu zen jardunaldietako hizketaldietan, hizkuntzaren erabilerak duen garrantzia nabarmenduz.

IKAZOKA

Ikazoka, hezkuntzako profesionalen azoka egin da lehenengoz maiatzaren 18tik 21era Durangon. Azokaren helburu izan dira euskararen eragina teknologia berrietara, goi mailako hezkuntzara eta, oro har, esparru ezberdinetara zabaltzea. Sektore profesionalek, irakasleek eta gurasoek oso harrera ona egin zioten Ikazokari lehen egunetik.



agenda

TOPONIMIA MINTEGIA

Berripapera-ren aurreko alean iragarri genuenez, toponimiari buruzko mintegia egingo da ekainean Euskal Herrian. Hilaren 12tik 16ra izango da, HABEk Donostian duen egoitzan. Jakina denez, toponimoen erabilera, bide-seinaleak, jatorria e.a. aztertuko dira mintegi honetan.

Pertsonaia

BITTOR KAPANAGA

Omenaldia jaso du Mendebalde Kultur Alkartearen jardunaldietan



JAKIN

Bittor Kapanaga euskaltzaleari omenaldi eginez burutu ziren joan den maiatzaren 12 eta 13an Bilbon egin zituzten Mendebaldeko Kultur Alkartearen jardunaldiak. Omendua beti euskararen alde agertu izana eta berak egingo lana goraiatu zituzten antolatzaileek. Bittor Kapanagak berak behin baino gehiagotan adierazi izan duenez, euskaraz maitemindurik bizi izan da beti eta horren arabera saiatu da lanean ere.

Mendebalde Kultur Alkartearen jardunaldiak direla eta, Bittor Kapanagak ontzat eman zuen bizkaieraren egoera, nahiz eta

mendebaldeko euskalkia hogeitaz hamar urte hauetan bazterturik egon dela adierazi. Bere iritziz, euskalki guztietan egin behar da batua eta bide horretan aurrera ari da euskara, arlo guztietan ere.

Hizkuntza beti aldatzen ari denez, batuan ere aldaketak egin behar direla esan zuen Bittor Kapanagak Mendebalde Kultur Alkarteari egin zion omenaldian. "ETB-1, adibidez, tresna ikaragarria izan liteke bide horretan, nahiz eta sarritan ez den erabiltzen, edo txarto erabiltzen den."

Otxandioko euskaltzaleak euskara batua bultzatu behar dela esan izan du beti, bizkaieratik ere zentzuzko gauzak egin behar direla azpimarratuz. "Nik euskara batua erabili izan dut beti hitzaldietan, baina lagunartean herriko euskara erabiltzen dut. Ez dago kontraesanik. Itsukeria da arazoa".

"MENDEBALDEKO BERBETEAREN FORMALIZAZINOIA"

Ehun bat lagunek hartu du parte aurten Mendebalde Kultur Alkartearen jardunaldietan. "Mendebaldeko berbetearen formalizazioa" izenaren azpian burutu dira saioak, lau ekitalditan banaturik: gramatikari buruz egin dira lehen biak, intonazioaren eta azentuaren gainekoa izan da hirugarrena, eta lexikoaz azkena. Gramatika alorreko ekitaldian hizlari izan ziren Juanjo Respaldiza eta Gotzon Garate euskara zuzen eta egokiaren alde agertu ziren, hizkuntzaren aberastasunaren berri emanez.

Intonazio eta azentuari dagokionez, berriz, lehen aldiz landu dute gaia kultur elkarteok eta ontzat eman dute bidean abiatu izana. Lexiko arloan, azkenik, hiztegigintzan diren arazoak eta horiek konpontzeko moduak aztertu dituzte.

Jardunaldik bukatu orduko, hurrengo urtekoak irakaskuntzari buruz izango direla ere iragarri zuten elkartearen arduradunek.




GERO ETA HERRI GEHIAGO DIRA UEMAN

Sei kide gehiago dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean

Berrogei kide baino gehiago ditu UEMAk oraintxe. UEMA eguna egin zen Iruran maiatzaren 21ean eta Amoroto, Segura, Belauntza, Ezkio-Itsaso, Urdiain eta Arbizu Mankomunitatearen kide berri dira harrezkero.

Osasungintzan eta bake-epaitegien arloan saiatu da Mankomunitatea azken aldian eta, bertako ardura-dunek adierazi dutenez, merkataritza eta lan-mundua euskalduntzen ahalegintzea da, orain, UEMA osatzen duten herrietako erronka nagusia.

Mankomunitatearen informazio gehiago nahi izanez gero, hona helbidea sarean: www.jalgi.com/uema



"Gidariaren eskuliburua" argitaratu du Jaurlaritzak



Bideko segurtasun-plana egiten ari da Eusko Jaurlaritza eta "Gidariaren Eskuliburua" argitaratu du, ikasmaterialak sustatzeko laguntzarako deialdiak egiteaz batera. Argitalpenari dagokionez, gidatzen ikasteko oinarrizko liburua da. Bertan biltzen dira gai horri buruzko eskuliburuak eta test guztiak. Helburuak, berriz, erabiltzaileari prestakuntzan laguntzea eta bide hori euskaraz egiteko tresna eskaintzea.

Ikasmaterialez ari garela, Jaurlaritzak diru-laguntzak emango dizkie auto-eskoletan erabiltzen diren eskuliburu eta test-liburuak euskaraz argitaratu nahi dituzten argitaletxeei.

Gidariaren eskuliburua argitalpen berri honen aurretik, *Bide Seinaleak*, *Trafiko*, *Zirkulazio* eta *Bidesegurtasuneko Legedia*, eta *Zirkulazio Hiztegia* argitaratuak zituen Jaurlaritzak.